

EUSKAL ELEBIDUNAK DESKRIBATZEN: 2015-2021 BITARTEKO IKERKETAK AZTERGAI

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Oihane Yerro Arribillaga

oyerro002@ikasle.ehu.eus

UPV/EHU

2021-2022 ikasturtea

Tutorea: Amaia Munarriz Ibarrola
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

LABURPENA

Azken urteotan, izugarri ugaritu dira elebidunen inguruko ikerketak, eta baita elebidunen inguruko ikerketa konparatiboak ere. Lan horiek hainbat erabaki metodologiko hartzea eskatzen dute, tartean elebidunen (edota elebakarren) kategorizazioari dagozkionak, eta egiteko hori konplexua da. Gero eta lan gehiagok erakutsi dute ez dagoela irizpide argirik elebidun edo elabakrarrak bereizteko, eta ezta elebidun moten arteko bereizketarako (Luk & Bialystok, 2013; Wagner et al. 2022). Surrain eta Luk-ek (2019) 2005-2015 bitarteko elebidunen inguruko lan enpirikoak aztertu zituzten elebidun eta elebakarren etiketa eta deskribapenak literaturan nola egiten ziren aztertzeke asmoz. Lan horrek erakutsi zuen irizpide desberdinak erabiltzen zirela bai gaitasuna aztertzeke, eta baita parte-hartzaileak deskribatzeko eta kategorizatzeke ere, eta horregatik, ondorioztatu zuten aurrera begira parte-hartzaileak zehatzago deskribatu beharra.

Lan hori oinarri hartuta, gradu amaierako lan honen helburua da euskal elebidunak 2015-2021 bitarteko lan enpirikoetan nola etiketatu eta deskribatu diren aztertzea, esperientzia elebidunean eragiten duten faktore psiko-sozialak nola jaso eta azaltzen diren ezagutzeko. Horretarako, nazioarteko Scopus datu-basean euskaldunei buruzko ikerketa enpirikoak oinarri dituzten artikuluen corpusa osatu dugu (135 artikulua). Artikulu horietan honako ezaugarri hauek jasotzen diren eta hala bada nola neurtu diren aztertu dugu. Batetik, parte-hartzaileei erreferentzia egiteko etiketen erabilerari erreparatu zaio, hain zuzen, etiketa horietan honako hauek ageri diren aztertu da: elebidun elebakar dikotomia, jabekuntza-adina, hizkuntza nagusitasuna eta hizkuntza gaitasuna. Bestetik, parte-hartzaileen deskribapenei dagokienez, euskal elebiduna ezaugarritzeko zer datu ematen diren (besteak beste gaitasuna, erabilera, etxeko hizkuntza eta eskolatze hizkuntzaren zehaztapenak, eta azkenik, parte-hartzaileen testuinguru soziolinguistikoa) eta datu horiek lortzeko erabilitako galdetegiak edo bestelako tresnak zein diren aztertu nahi izan dugu.

Emaitzek erakutsi dute etiketei dagokienez, herenak baliatzen duela elebakar elebidun dikotomia eta gehienek jabekuntza-adinean oinarrituriko etiketak erabiltzen dituela (2H1, H2g, H2b, H1, H2). Horrekin batera, hizkuntza nagusitasuna (*dominant, balanced bilingual*) eta hizkuntza gaitasuna (*highly proficient*) ere adierazten dute batzuek. Deskribapenei dagokienez, euskal elebidunak ezaugarritzeko galdetegiak erabiltzen dira ikerketen erdian; eta horietan galdetegi subjektiboak gailentzen dira. Erabileraren inguruko zehaztasunak

apenas ageri dira, eta datu hori baino sarriago jasotzen da etxeko hizkuntza zein den eta eskolatzeko hizkuntza. Azkenik, Surrain eta Luken (2019) ikerlanean ez bezala, eremu soziolinguistikoa da euskal elebiduna deskribatzeko gailendu den ezaugarria (erdiak edo aipatzen du), hein handi batean aldagai honek bideratzen duela euskal elebidunaren esperientzia eta ezaugarritzea.

Hortaz, lan honek ere agerian uzten du zailtasunak zailtasun euskal elebidunak karakterizatzerakoan irizpide gardenago eta zehatzagoen beharra, horrek bakarrik ahalbidetuko baitu, lanen arteko konparaketa.

AURKIBIDEA:

| | |
|---|----|
| 1. Sarrera..... | 4 |
| 2. Elebidunen deskribapena literaturan | |
| 2.1. Elebidunen tipologia eta ezaugarriak..... | 5 |
| 2.1.1. Faktoreak..... | 8 |
| 2.2. Elebidunak ezaugarritzeko galdetegiak..... | 12 |
| 2.3. Euskal elebidunak..... | 15 |
| 2.4. Lanaren helburua eta hipotesiak..... | 17 |
| 3. Metodologia | |
| 3.1. Corpusa..... | 18 |
| 3.2. Kodeketa..... | 18 |
| 4. Emaitzak..... | 19 |
| 5. Eztabaida..... | 23 |
| 6. Ondorioak..... | 28 |
| 7. Erreferentziak | |
| 7.1. Erreferentziak..... | 30 |
| 7.2. Corpusa osatu duten erreferentziak..... | 32 |

1. SARRERA:

Elebidunen inguruan egindako ikerketak ugari dira eta esan daiteke ikerketa enpirikoek hainbat erabaki metodologiko hartzea eskatzen dutela, tartean parte-hartzaileen hautatze irizpideei dagozkienak. Horren oinarrian, elebidun-tipologia edo moten ezaugarritzea dago. Hizkuntza aniztasunak, eta egoera sozial desberdinek, ingurune soziolinguistikoak, hiztun elebidunen gaitasun eta erabileran eragiten dute (Meisel, 2012), eta hori erronka da ikerketei begira elebidun motak sailkatu behar direnean. Ikerketatik ikerketara elebidunak sailkatzeko edo ezaugarritzeko aintzat hartzen diren ezaugarriak aldatzen direnez, zaila da gero ikerketak alderatzea, oinarrian dauden parte-hartzaileen sailpakenean ezaugarri desberdinak aintzat hartu badira (Surrain eta Luk, 2019). Eta beraz, elebidunen tipologia ongi ezagutzea funtsezkoa da gero elebitasunak dituen inplikazioak aintzat hartuko baditugu. Surrain eta Luk-ek (2019) lanean ondorioztatu zuten, nahiz eta elebidun eta elebakarren hizkuntza eta kognizio emaitza akademioak alderatzen zituzten ikerketa anitz burutu, elebitasunaren efektuak ulertzerakoan hiru arazo metodologiko gailentzen zirela. Batetik, ikerketek elebiduna era desberdinetan definitu eta ezaugarritu egiten dute, eta horrek zaildu egiten du ikerlanen arteko konparaketa. Bestetik, elebitasuna esperientzia dinamikoa den heinean, informatzaile diren faktoreak desberdinak izan daitezke parte-hartzaileen adinaren arabera. Azkenik, parte-hartzaileak testuinguru soziolinguistiko desberdinetan murgilduak daude, eta beraz, hizkuntzaren egoeraren inguruko informazioa emateaz gain, hiztunaren emaitzetan honek izan dezakeen eragina ere neurtu egiten da (Surrain eta Luk, 2019). Hortaz, Surrain eta Lukek ondorioztatu zuten, elebidunaren izaera aho batez zehaztu baino lehenago, kontuan hartzekoak direla ikerketa bakoitzak elebiduna ezaugarritzean erabilitako xehetasunak. Arean are, elebitasunak balio sozial garrantzitsua baitu eta hartaz, arrazoitu egiten da esperientzia elebidunak garapen eta ikaste prozesuak osatzen dituela.

Halaz gradu amaierako lan honen helburua da Surrain eta Luk (2017) lanean oinarrituz, euskal elebidunak nola etiketatu eta deskribatu diren aztertzea, zehatzago, ezagutu nahi dugu euskal elebidunak deskribatzerakoan zein ezaugarri jaso diren, elebidun horien tipologia zein faktore psiko-soziolinguistikotan oinarrituta egin den eta informazio hori nola jaso den (galdetegia, modu informalean...). Euskaldunen inguruko lan zientifikoaren lagina osatzeko, nazioarteko Scopus datu-base bibliografikoa baliatu da eta 2015-2021 bitartean

argitaratutako lanak hartuko ditut kontuan. Gradu amaierako lan honen egiturari dagokionez, hasteko, nazioarteko literaturan elebidunak sailkatzeko baliatzen diren etiketa eta ezaugarriei erreparatuko zaie (2.1). Ondoren, elebidunak sailkatzeko beharrezkoa den informazioa lortzeko erabili ohi diren galdetegiez jardungo dugu 2.2. atalean. 2.3. atala euskal elebidunen deskribapenari eskainiko zaio, tartean zenbait datu soziolinguistiko eskainiz. 3. atalean zehaztasun metodologikoak emango dira, lagina hautatzeko prozedurari eta kodeketari begira. Ondoren, emaitza nagusiak aurkeztuko dira 4. atalean. Amaitzeko, 5. eta 6. ataletan emaitza horien eztabaida eta ondorio nagusiak aurkeztuko dira, hurrenez hurren. Guztira 100 lanek osatu dute lagina.

2. ELEBIDUNAK

2.1. ELEBIDUNEN TIPOLOGIA ETA EZAUGARRIAK

Gizakia bi hizkuntza bereizteko gai ote den edota burmuinak soilik hizkuntza batekin aritzeko aukera duen edo ez bezalako galderen inguruko eztabaida ugari piztu dira gizakiaren hizkuntzaren gaitasunaren inguruan XX. mendearen bigarren erdian (Barreña eta beste, 2009). Galdera hauek erantzuteko elebitasunaren eta eleaniztasunaren aldeko jarrerak sortu daitezke. Denbora luzez jabekuntzaren inguruko ikerketak, elebakarretara mugatu ziren, eta helduen bigarren hizkuntzaren ikaste prozesuetara. Ikerketa sakonen ondorioz, hizkuntzen aldi bereko jabekuntza, elebidun jabekuntza izan daitekeela frogatu da; erakutsi baita haurrek goiz desberdintzen dituztela sistema gramatikal desberdinak, gerora elebakarren garapen sekuentzia berdinak jarraituz, hizkuntza bakoitzean maila altua lortuz (Meisel, 2012).

Hiztun elebiduna definitzeko saiakera ugari egin dira, izan ere, hainbat faktorek eragiten dute hizkuntza batean lortzen den ezagutza mailan: jabekuntza adina, input kopurua, erabilera, ikasteko modua, motibazioa, eta abar luze batek; esaterako honela definitzen du Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoak (2001/2005):

Hizkuntza baten gaineko ezagutza oro ezagutza partziala da, ama-hizkuntza edo jatorri-hizkuntza izanda ere. Beti da osagabea, sekula ez dago ama-hizkuntza duen hiztun ideal bati legokiokoen mailaraino garatuta eta sekula ez da harengan bezain perdekua gizabanako arrunt batean. Gainera, gizabanako jakin batek sekula ez ditu hizkuntza hori osatzen duten alderdi guztiak maila berean

menderatzen (adibidez, ez ditu berdin menderatzen ahozko eta idatzizko trebetasunak, edo ulermen eta interpetaziozko trebetasunak eta ekoizpenezkoak). (Europako erreferentzia markoa, 2001/2005 Ibon Manterolak itzulia: 192.or.).

Haur elebidunen inguruko ikerketek bi hizkuntza edo gehiagoren aldebereko jabekuntza ikertuta, hiru ondorio nagusi baieztatu dira; batetik, sistema linguistikoak hasieratik desberdintzen dira; bigarrenik, gramatikaren garapena haur elebakarren antzerakoa da; hirugarrenik, haur elebidunak hizkuntza bakoitzean eskuratzen dituen baliabide gramatikalak homologo elebakarrek eskuratzen dituztenen naturaltasun berekoak dira (Meisel, 2007: 393).

Elebidun eta elebakarrak alderatzen zituzten ikerketa batean (Bialystok eta Craik, 2010), batetik, aldagai kognitibo eta hizkuntza gaitasun baxuko elebidunak erkatu ziren, eta bestetik, aldagai kognitibo eta hizkuntza gaitasun parekoa (gaitasun altuko elebidunak) erkatu ziren. Emaitzak argi erakutsi zuen gaitasun handiko elebidunek elebakarrek bezain besteko errendimendua zeukatela kategoria jariorasunean eta gainera, hobea letren jarioan. Hartaz, elebidunen kontrol exekutiboan abantailak gaitasun maila altuko elebidunak elebakarren aurretik kokatzen ditu monitorizazio, inhibizio eta konmutazio eskaera zailak dituen ahozko galdetegian, (Bialystok eta Craik, 2010: 566)

Elebidun motak sailkatu egiten dira hizkuntz(ar)ekiko lehen kontaktuaren adinaren eta testuinguru sozialaren arabera. Batetik *jaiotzetiko elebidunak* (natiboak) ditugu, jada jaiotzetik bi hizkuntza entzuten dituztenak, hau da, etxeko testuinguruan bi hizkuntza daudenean (2H1¹). Bestetik, *ondoaz ondoko elebidunak* lehenengo hizkuntza (H1) jaso ondoren, goiz samar, bigarren hizkuntza bat (H2) erregulariki entzuten hasten dira, eta beraz, haurtzarora amaitzerakoan bi hizkuntzez jabetu dira, bata bestearen ondoren (H2g). Hala ere, komenigarria da kontuan izatea mugak ez direla zehatzak eta hartaz, 2H1 eta H2g-ren muga zehatza ez dagoela ziur kokatzerik (De Houwer, 2009: 4). *Ondoaz ondoko elebidun berantiarrak* (H2b) bigarren hizkuntzaren ikaskuntza nerabezaroa baino lehenago burutu dutenak dira. Hala ere, muga zehatza ez dago ziur kokatzerik, batzuek seigarren urtean kokatzen dute muga. (Meisel, 2007).

¹ De Hower-ren 2009ko *What is Bilingual First Language Acquisition* lanean, BFLA gisa laburtzen da (Bilingual First Language Acquisition), guk 2H1 erabiliko dugu. Elebakarrak, MFLA (Monolingual First Language Acquisition), guk H1. Ondoaz ondoko elebidunak, ESLA (Early Second Language Acquisition), guk H2g.

Meiselek (2007) H1 eta H2 hizkuntzen jabekuntzaren oinarrizko desberdintasunik ba al zegoen aztertu zuen eta ondorioztatu zuen hizkuntza ahulenaren edo WL²ren hipotesiak iradokiko lukeela H1 eta H2ren jabekuntza prozesuan oinarrizko desberdintasunak daudela. WLren garapena H2ren jabekuntzarekin alderatzeak aditzera ematen du, bai jaiotzetiko elebidunaren WL eta H2 nabarmen desberdinak direla H1en jabekuntzarekiko, ingurune elebatar zein elebidunetan. Schlyter-ek (1993) adierazi zuen hizkuntza indartsuenak H1en ezaugarri guztiak biltzen dituela fenomeno gramatikalei dagokienez (hitz hurrenkera, ezezkoa, etabar); aldiz, WLk aldaketa nabariak ditu alderdi honetan eta aldaketa hauek H2ren jabekuntzan ere aipagarri dira. Honela, WL eta H2ren arteko alderatutako ikerketek (Meisel, 2007), erakutsi dute WLren garapena atzeratu daitekeela baina honek ez duela hizkuntza porrotik adierazten. Beste hitz batzuetan, 2H1en hizkuntzetako baten jabekuntzaren porrot partzialak erakuts dezake badagoela bestelako murrizketa bat gramatika garapen osagabearen oinarrian. Aditzera ematen du esposizio linguistikoa ez dela soilik hasierako garapen etapan gauzatu behar baizik eta, atalase zehatz bat atzitu behar duela. Ondorioz, inputaren kantitate eta kalitateak hizkuntza gaitasunean eragiten dutela.

Hizkuntza bat nagusia eta bestea ahula delako ustea gizartean oso errotua dago; Meiselek (2007) iradokitzen du hein batean hizkuntza bat egoera jakin batzuetan gailentzen delako dela, eta horrek azalduko lukeela WL hizkuntza harremana. Lehenengo hizkuntza ez da edozein egoeratan erabiltzen eta bigarren hizkuntza da denboraldi luzez gailentzen dena, eta hartaz honek ekarriko luke WL edota hizkuntza ahula dena izatea. Haatik, esan, ondorio kuantitatiboak direla, ez dutela hiztunaren ezagutza adierazten, eta beraz, ingurune soziolinguistiko zehatz batzuetako ondorio direla.

Hizkuntzaren lehenetasuna ezaugarri psikosoziolinguistikoek ezartzen dute, hau da, hizkuntza batekiko indibiduoak duen jarrerak, jabekuntza-adinak, esposizioak eta erabilerak eragiten du hizkuntza bat edo bestearen lehenespenean.

2H1 eta H2g haur elebidunen esperientziak desberdinak dira (De Houwer, 2018) ; 2H1n hasieratik inputaren aldaketa linguistikoak hantzematen dituzte haurrek, izan ere, ingurukoek hizkuntza desberdinetan hitz egiteari jaiotzetik ohitu dira. Haur hauek aldi berean

² Meisel-en (2007) lanean, weaker language aipatzen du, hiztun elebidunaren hizkuntza ahula.

gradualki ikasten dituzte bi hizkuntzak. 2H1 haurrek 13 hilabetetara elebakarrek 4 hilabete geroago garatzen duten hiztegia garatzen dute. Honek elebidun goiztiarren abantaila iradokitzen du (De Houwer, 2018; 4). H2g haurren esperientzia, aldiz, desberdina da. Elebakarrak izatetik, ulertzen ez duten hizkuntza bat entzuten dute ingurune akademiko batean; ez ulertzeak portaera psikosozialean eragin dezake. Hizkuntza berria guztiz ulertzeko denbora tarte bat beharko dute haurrek, zaila da denbora tarte mugatzea, izan ere, H2 entzuten hasten diren momentuaren arabera eta beste hainbat faktoreen arabera izanen da; lexikoaren ikasketa inputaren arabera izanen da, eta H2g haurrak H2ren, elebakarren H1en baino esposizio gutxiago dutenez gero, Bialystokek eta bestek (2010) egindako ikerketa batek erakutsi zuen H2g haurrek ulermen probetan emaitza okerragoak zituztela. Haurrek hizkuntzaren esposizio gehiagorekin lexiko gehiago garatzen dute (De Houwer, 2018).

Ikerketek erakutsi dute H2ren jabekuntza berantiarra H1en jabekuntza mekanismo kognitibo eta garun-estruktura desberdinen arabera dela (Perani eta Abulatebi, 2005). Honek aditzera ematen du H2ren ezagutza gramatikala ez dela inplizitua eta ezker aurreko-gongoilean garatzen dela. Gerta daiteke erabilerak eta hizkuntza horren esposizioak garunaren mekanismoen plastikotasunean eragitea, H2ren prozesamenduan hain zuzen ere. Lehenengo ERP ikerketek erakutsi zuten H1 eta 2H1 hiztunek ez zutela garunaren prozesamenduan desberdintasunik erakusten (Perani eta Abulatebi, 2005). Aitzitik, sei urteko elebidunengan ikusi da H2g-n baliabide neuronal gehigarriak behar dituztela gramatika arloan natiboen pareko emaitzak lortzeko. Hala ere, prozesamendu gramatikala, H1-en bezala, garuneko dispositibo konputazionaletan gauzatzen da: desberdintasunak egon litezke baliabide gehigarrien eskaeran baina, hauek sistema neural berdinean aurkitzen dira. Hortaz, hizkuntza menderatzeak, jabekuntza adinak eta jasotzen den inputak eragin dezake hizkuntza bakoitzaren errepresentazioan (Perani eta Abulatebi, 2005: 203).

2.1.2. FAKTOREAK

Gramatika Unibertsalaren barnean, onartu egiten da hizkuntzaren garapena nagusiki printzipio gramatikalek zehazten dutela. Hala ere, honek ez du baztertzen bestelako faktoren eragina hizkuntza jabekuntzaren konfigurazioan, besteak beste, hizkuntzaren beraren egoera soziolinguistikoa, hizkuntza bakoitzean jasotako inputa, estatus sozioekonomikoa eta gurasoek erabiltzen duten hizkuntza (Meisel, 2012).

Haur elebidunen kasuan, hizkuntza bakoitzean jasotzen den inputak aldaketak eragiten ditu elebidun perfil desberdinetan, izan ere, hizkuntza zehatz batean jasotzen den input kantitatea hertsiki lotzen da haurrak lortzen duen hizkuntza gaitasunarekin. Austinek (2006) euskal adibide batekin erakutsi zuen nahiz eta forma zehatz batzuen agerraldien maiztasunak ez azaldu garapen eredu zehatzik, nabarmendu egiten dela inputaren garrantzia. Barnes eta Garciaren ikerketan (2012) lexikoaren hazkundearen eta jasotzen den input kantitatearen arteko korrelazioa frogatu zen. Ez bakarrik hiztegi mentalaren tamainan, baizik eta kategoria sintaktikoen ekoizpenean ere. Desberdintasun nabarmenak aurkitu zituzten: inputaren sarrera %60 baino baxuagoa zenean, eta are gehiago %40koa zenean. Datuek erakutsi zuten elementu ez-nominalen eta aditzen erabilera baxuak eragina dutela garapen sintaktikoan. Hartaz, jabekuntza hirueledun edo eleanitzean inplikazioak bistakoak izan beharko dira, izan ere, egoera hauetan gutxienez hizkuntza bateko inputa %40ko erreferentzia puntutik beherakoa izanen baita (Meisel, 2012: 6).

Bestalde, komunitatearen maila sozioekonomikoak harremana izan dezake hizkuntzaren estatusarekin. Askotan, maila sozioekonomiko baxua duen herri bateko hizkuntzari, maila sozioekonomiko altua duen hizkuntzari baino estatus baxuagoa esleitzen zaio (Dijkstra et al., 2016). Haur ingeles, italiar eta aleman elebarrarekin egindako ikerketak erakusten du maila sozioekonomiko baxua alderdi arriskutsua zela hizkuntzaren garapenerako. Ez da berdina gertatzen elebarr gaztelaniadunekin (De Anda et al., 2016; Jackson-Maldonado et al., 1993). Alderatutako emaitzak zaildu egiten dute aldagai sozioekonomikoaren eraginaren gaineko ikerketa haur elebidunetan. De Anda et al.-ek (2016) alderdi sozioekonomikoaren eragina 16 hilabeteko haur elebidunetan aztertu zuten, eta emaitzetan, gazteladun 36 hurrek ez zuten loturarik erakutsi, bai ordea, 25 haur ingelesdunetan, izan ere, maila altuagoko amen hurrek errendimendu altuagoa baitzeukaten. Collins eta Toppelbergekin (2021) ere gaztelania-ingelesekin 228 ikasleekin egin zuten azterketa eta argi erakutsi zuten, bai ingelesaren eta maila sozioekonomikoaren arteko lotura, baina, ez ordea gaztelaniarekikoa.

Hizkuntzaren jabekuntzaren inguruko literaturan, gurasoen heziketa eta bizi baldintza gisa ulertu izan da. Honek, eragina du hizkuntza nagusia menderatzen ez duten horien lan baldintzetan edota ikasketa aukeretan. Beste hitz batzuekin, estatus linguistikoa familia bakoitzaren arabera maila sozioekonomikoaren arabera izan daiteke ere, kontuan

hartzekoak baitira errenta, gurasoen hezkuntza maila eta lan egoera, hauek izan ditzaketen ikasketa aukeretan (Dixon et al., 2011: 26). Nahiz eta ikerketetan gehienetan soilik estatu sozioekonomikoaren baldintza bakarra kontuan izan, baldintza guzti hauen informazioak hiztunaren ingurunearen aspektu gehiago azal ditzake. Maila sozioekonomiko baxuak garapen kognitiboan eta hizkuntza emaitzetan arrastoa uzten du, izan ere, bi ildo nagusitzen dira; batetik, maila baxua izateak dakarren estres kronikoa eta ondorioz, honen eragina kontrol kognitiboaren sisteman, eta bestetik, kalitate baxuko familia testuinguruan, alfabetizazio jarduera, gurasoen lengoia eta heziketa metodoak maila baxuak diren heinean, eragiten dute haurren hizkuntza garapenean (De Cat, 2021: 2).

Lan horietan oinarrituta ondoriozta daiteke, beraz, aldagai berdina izan arren, familiaren egoera sozioekonomiko jakinak eraginen duela era batera edo bestera haur elebidunen hizkuntza garapenean. Hartaz, aldagai sozioekonomikoarekiko korrelazioa desberdin gauzatzen da haur elebidun eta elebakarretan (De Houwer, 2021 : 52). Alderdi honek hizkuntza garapena neurtzen badu, gurasoen elkarrekintzaren arabera izanen da. Ere ere, elebidunetan garrantzizkoa izanen da amaren zein aitaren neurriak kontuan hartzea. Aitek era desberdinean hitz egin diezaiokete haurrari, amaren moldearekin alderatuz, edota hizkuntza batean bestean baino gehiago hitz egin. Hala ere, ezin da zehaztu alderdi sozioekonomikoa aldagai nagusi bakarra edo nagusietarikoa den. Hizkuntza eta kultura ezberdinak ukipenean diren familia elebidunetan, haurrekiko interakzioan alderdi kulturalak ezartzen dituen interakzio ereduak talka egin dezakete maila sozioekonomikoak ezartzen dituen interakzio joerekin; kultur eta egoera sozioekonomikoaren arteko harremana gauzatzen da, hau da, bata edo besteak ezartzen dituen interakzio ereduaren arteko gainjartzeak. (De Houwer, 2021: 53). Guraso batek hizkuntza gutxituan zein nagusian hitz egiten badu, hizkuntza gutxituan ekarpen gutxiago egon daitezke, bi gurasoek hizkuntza gutxitua hitz egiten duten familietan baino. Azken hauetan, hizkuntza gutxitua erabiltzeko ingurune aproposak eratuko baitituzte (De Houwer, 2013).

Euskal eremuan, Manterola, Almgren eta Idiazabalek (2009) euskara H2 zuten haurren eta 2H1 ziren haurren hizkuntza garapena alderatu zuten gaitasun diskurtsiboetan oinarrituta. Lehenengoak ingurune erdaldun batean hazitakoak eta bigarrenak euskaldunago batean. Bi taldeen ipuin kontaketa gaitasuna aztertu zuten; H2 haurrek ez zuten 2H1 baino gaitasun baxuagorik erakutsi, eta beraz, ikerketa honek frogatu zuen murgiltze ereduaren eraginkortasuna, egileek esan bezala. Adinak izan zezakeen eraginaren arabera, azaltzen dute,

narrazio gaitasunak garatzeko aukera hertsiki lotuak daudela gaitasun kognitibo, sozial, zein linguistikoekin, eta hauek, adinarekin lotura duten aldaketekiko harremana dutela. Esan beharra da, beraz, jabekuntza-adinak edo lehen hizkuntzak ez duela paper nagusirik jokatzen ezagutza semantiko eta pragmatikoan (Meisel, 2021: 6).

Hizkuntza jabekuntza prozesuan garrantzizkoa da eskola hizkuntzaz gain, etxeko hizkuntza ere. Etxean zein eskolan jasotzen den esposizioa garrantzizkoa da hiztegia sustatzeko. Gathercolek eta Thomasek (2009) frogatu zuten etxeko hizkuntzak adin goiztiarrean jabekuntza prozesuan parte hartze garrantzitsua zuela. Familien sostengua erabakigarria izan daiteke hizkuntza txikiaren garapenerako, etxetik kanpo euskarri gutxiago aurkitu daitezkeelako. Ezeizabarrenak eta bestek (2017) ere ondorioztatu zuten hizkuntzaren esposizio maila dela adin goiztiarretan, gaitasuna-maila azaltzeko faktorerik aipagarriena, eta aurreragoko adinetan efektua handitu egiten dela. Izan ere, faktore soziolinguistikoak (xede hizkuntzaren esposizioa eta H1) eta faktore biogenetikoaren (ume goiztiarra) arteko analisi gurutzatuek adierazten dute hiztegiaren garapenean eragiten dutela. Adin gehiagoko haurren ikerketak ondorioztatu zuten xede hizkuntzaren esposizioa, H1 eta gurasoen euskararen erabileraren maiztasuna gailentzen ziren faktoreak zirela. Honela, euskararen esposizioa hiztegiaren garapenerako faktore gisa aurkeztu zen Ezeizabarrenaren lagin osoan.

Sanchez-Morenok eta bestek (2011) ondorioztatu zuten jakuntza-adin bera duten hiztun elebidunek hizkuntzaren esposizio mailaren arabeko garapen patroia desberdinak erakutsi ditzaketela. Hartaz, iradokitzen dute jabekuntza prozesuen arteko desberdintasunak ez direla elebakar edo elebidun kategorietan oinarritzen, baizik eta esposizio asko (nahikoa) izandako hiztunen (elebakar zein elebidun) eta esposizio xumea (urria) izan dutenen hiztunen artekoa. Haur elebidunek denbora eta bi hizkuntzak ikasteko aukerak behar dituzte (De Houwer, 2013); inguruko jarrera positiboarekin batera, haurrak gai izanen dira bi hizkuntzetan jarria izateko.

2.2. ELEBIDUNAK EZAUGARRITZEKO GALDETEGIAK

Nahiz eta azkenaldian argitaratutako hainbat lanek elebidunak ikergai dituzten, elebidun mota zehazteko irizpide orokorrik ez dagoela erakutsi zuten Surrain eta Lukek (2019). Batetik, erakutsi zuten gaitasun linguistikoa neurtzeko bide anitzez baliatzen direla

ikertzaileak; hizkuntza hautaketa, elkarrizketak, trebetasun probak, zeregin psikolinguistikoak, esperientzia oinarrituriko edota arlo psikosozialean oinarrituriko irizpideak. Bestalde elebidun mota sailkatzeko galdetegiak ere oso ohikoak izan dira elebidunen edo bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren inguruko ikerketetan, elebidun mota zehazteko baliabide gisa. Galdetegiak garrantzitsuak dira, baina, horietako asko ez daude estandarizatuta eta, ondorioz, bertsio indibidualen artean emaitzak gainjarri egiten dira eta ikerketetako elebidunen arteko konparaketak zaildu egiten dira (Li, Sepanski eta Zhao, 2006: 202).

Horregatik, gero eta ikertzaile gehiagok nabarmentzen dute ebaluazio tresnen estandarizazioa, harreman sozialean, eremu akademikoan, kognizioan eta bestelako giza alderdietan gauzatzen diren elebitasunaren ondorioak zehazteko. Gainera, estandarizazioak ahalbidetuko luke esperimientuen arteko konparaketan emaitzen interpretazioa (Surrain eta Luk, 2019). Bi galdetegi mota bereiz genitzake; batetik elebidunaren izaera ezaugarritzen duten galdetegi psiko-soziolinguistikoak eta bestetik, elebidunaren gaitasuna neurtzen duten galdetegiak.

Galdetegi psiko-soziolinguistikoetako bat dugu Bilingual Language Profile (BLP). Estandarizatuta dagoen galdetegia da, eta autoebaluazioen bidez hizkuntza menderatzen den adierazten da eta kontzeptualizatzeko baliabide sistematikoak eskaintzen ditu. Honetan, ikertzaileek, hezitzaileek eta administradoreek era azkar eta erraz batean jaso dezakete hiztun elebidunaren gaitasun linguistikoaren inguruko pertzepzioa. Tresnak ebaluatu egiten du hizkuntza historiala, gaitasuna, erabilera, eta hiztunak berak, bi hizkuntzekiko duen jarrera zein den jasotzen du bertan. Hartaz, gaitasuna osatzen duten elementuak xeheki aztertzen dira eta gaitasun ebaluazioa zehaztu egiten da. Neurriak erabiltzen dira, hiztunaren gaitasun perfila garatzeko. Espezializatu gabea den edonork erabili dezake eta 10 minutu baino gutxiagoan osatzen da. Neurri anitz barnebiltzen dituen galdetegia da, gaitasunaren pixkanakako prozesua islatzeko, eta era berean, gaitasunean eragiten duten faktoreak biltzen dituen; hala nola, adina, eskolatzeko urtea, erabilera, ingurune linguistikoa, jarrera, konpetentzia, eta prozesamendu gaitasuna.

Gaitasuna ez da dikotomikoa izan behar, ez da hizkuntza baten edo bestearen alde egiten, elebidunak ez du gaitasun osoa hizkuntza batean soilik izanen, baizik eta, hiztunaren bizitzan zehar aldatuz joan daiteke. Hartaz, BLP galdetegiak lau moduloz osaturik daude;

lehenengoan elebidun mota sailkatzen da (jabetze urtea, eskolatzea, etxean); bigarrenean, hizkuntza erabileraz hausnartzen da; hirugarrenean, hizkuntza gaitasuna lantzen da, ea zenbateraino hitz egin eta ulertzen den; eta azkenik, laugarrenean, hizkuntzarekiko jarrera neurtzen da (Birdsong, Gertken eta Amengual, 2012). BLP galdetegiak eratzera, gaitasunaren eta kompetentziaren arteko desberdintasuna nabarmendu zen, nahiz eta askotan bi kontzeptuok bat egin:

Dominance is a construct that derives from the nature of bilingualism, of having two languages in one's mind. It involves the relationship between competencies in two languages, and is thus inherently relativistic. Proficiency, on the other hand, does not require a bilingual context for its definition. Even a monolingual can receive a score on a proficiency test. (Birdsong eta beste, 2012)

Era horretako beste galdetegi bat da *Bilingual Dominance Scale* (BDS) (Marian, Blumenfeld, Kaushanskaya, 2007), hiztun bakoitzak osatzen du, gaitasunean eragiten duten faktoreen inguruko datuak emanez. BLPn ez bezala, honetan, aldagai bakoitzari puntuazio bat ezartzen zaio, ez dute denek ponderaketa berdina eta asko galdera irekiak dira. Aipatzekoa da, BLPren oinarri gisa aurkitzen ditugula bi galdetegiok, haatik, hauetan aurki daitezkeen zailtasunak baztertzen ditu BLP galdetegiak; hala nola, faktore batzuei garrantzi gehiago ez emateko ponderazio berdina erabiltzen da aldagai guztietan, galdera irekiak baztertzen dira, eta perfil elebidunen deskripzio gisa erabiltzeaz gain, gaitasun neurri gisa ere erabil daiteke.

Autoebaluazio gisakoak ere ditugu *Self-rated proficiency and exposure* galdetegiak. Hiztunak berak zehazten du zer nolako gaitasun idatzia, ulermenezkoa, ahozkoa eta irakurtzeko gaitasuna duen, 1etik 7rako edo 10erako eskala batean kokatuz (Linkert scale) (Tomoschuk et al., 2018:516). Metodo erraz eta askotan erabiliak izan dira elebidunen gaitasun maila neurtzerakoan, nahiz eta ikusi den askotan korrelazionatzen direla neurri objektiboagoekin. Oso kritikatuak izan dira parte hartzaileek beraien burua gehiegi balioetsi edo kontrakoa egin dezaketelako. Hartaz, autoebaluazioak ez dira tresna bakarrik izan behar, nahiz eta informazio gehigarri erabilgarria eskaini. Honetan aurki genezake *Language Experience and Proficiency Questionnaire* edo LEAP-Q. Datu deskriptiboak biltzen ditu, eta ez da elebitasunera bakarrik mugatzen (Dunn, Fox Tree, 2009).

Galdetegi estandarizatuen ildotik, Basque Center on Cognition, Brain and Language ikerguneak BEST³ testa osatu zuen, zeinetan, elebidunen gaitasuna ebaluatzeko arau batzuk aurkezten zituzten. Datu baseak lau azpi proba desberdinen informazioa jasotzen du hiru blokeetan; bi neurri objektiboak biltzen dituztenak, hiztegiaren ezagutzarekin, hitzen eraketarekin eta hitzen identifikazio lotura dutenak, eta bestetik, elkarrizketa bat (De Bruin et al., 2017: 2).

Galdetegi objektiboen artean koka genitzake, batetik Picture naming edo izendatze ariketak edo *Multilingual Naming test*-a (Gollan et al., 2012). Honetan, txuri-beltzean erakusten dira irudiak, errezenetik zailenera. Eleaniztunentzako kendu egiten dira izen antzekoa duten irudiak, kognatuak kentzen dira (Gollan et al., 2012: 597). Bestetik, *Lexical Test for Advanced Learners of English* (LexTale) galdetegia dago (Lemhofer et al., 2011), hiztegi galdera laburrak, bai/ez erantzutekoak dituena. LexTale autoebaluazioekin konparatu zen eta emaitzek erakutsi zuten, LexTale orokorrean autoebaluazioen gainetik kokatzen zela (Lemhofer et al., 2011: 340).

Delis-Kaplan funtzio exekutiboen eskala (Bialystok, 2010) galdetegiak nabarmentzeko ditugu bestetik, hauek gaitasuna era objektiboan ebaluatzen dute eta estandarizaturik daude. Batetik, kategorien jarioa oinarri duen testak, gaitasun eta errendimendu linguistikoa neurtzen dutenak, eta bestetik, letra jarioaren galdetegiak, gaitasun linguistikoa eta kontrol exekutiboa neurgai dutenak. Elebidunek maiz erakutsi dute defizientzia hizkuntzaren prozesamenduaren zenbait alderdietan eta elebkarrek baino hiztegi urriagoa, hartaz, proba hauetan, elebkarrek baino hitz gutxiago ekoizten dituzte.

Galdetegia ez den arren, hiztunen hizkuntza gaitasuna era objektiboan ebaluatzeko *Marco Común Europeo de Referencia* (MCER) aipagarri da. Honek hizkuntza programen, kurrikulu orientazioen, azterketen, liburukien, etabar., amankomunean oinarriak ezartzen ditu Europa mailan eta era berean, finkatu egiten dira hizkuntza-gaitasun mailak.


2.3. EUSKAL ELEBIDUNAK

³ 650 euskal herritarren datuak jasotzen dituen basea da, euskara (Basque), inglesa (English) eta gaztelania (Spanish) testak (Testak) osatu zituztenak.

Azken urteetan hanibat lan argitaratu dira euskaldunen jabekuntza, gaitasuna eta erabilera aztertu dutenak. Euskaldun guztiak elebidunak diren heinean, lan horietako gehienetan elebitasunak garrantzi handia dauka. 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16 urtetik gorako biztanleen % 28,4 (751.500 pertsona) euskaldun dira, eta % 16,4 (434.000 pertsona) euskaldun hartzailea. 16 urtetik beherakoak kontuan hartuta, kopurua handiagoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko datuak soilik kontuan hartuta, 2016an 2 urtetik gorako 895.942 euskaldun eta 391.897 euskaldun hartzaile zeuden. Ikerketak interes handikoak izan dira; euskal eremuak ingurune elebidun eta soziolinguistikoki aberatsa erakusten baitu. Izan ere, euskara kontestu nazionalean, hizkuntza txikia bada ere, eta eremu nagusitu batean bazterreko hizkuntza den arren, hizkuntza nagusia da zenbait eremu geografiko eta sozialetan (Meisel, 2012). Euskal elebidunen jabekuntzan ere hainbat faktorek eragiten dute, eta ez da ahaztu behar horiei gehitu behar zaizkiela; batetik, euskarak dituen aldaera geografikoak, eta bestetik, euskal eremu bakoitzean hizkuntzaren nagusitasunaren gorabeheren ondorioz, hots, hizkuntzaren input edo esposizio aldakorra (Meisel, 2012: 3).

Hain zuzen, euskararen egoera soziolinguistikoari dagokionez, euskararen erabilerak gora egin du, oro har, erabilera-eremu guztietan, hala nola, etxean, lankideekin, lagunekin eta eremu formalean. Gorakada handiena izan du azken honek azken 25 urteotan, izan ere, 2016ko datuen arabera, %20,6k euskara erdara beste edo gehiago darabil udal zerbitzuetan. Euskararen gaineko ezagutzari dagokionez, esan behar da, Hego Euskal Herriko biztanle gehienak euskararen ezagutza %25 baino txikiagoa den eremuetan bizi dela, eta eremu hauetan erabilerak bere horretan jarraitzen du 2016ko datuen arabera, %3,3an. Aldiz, %75 edo gehiagoko euskararen ezagutza eremuetan, atzerakada izan da, azken 10 urte horietan (2006tik 2016ra) %67,8tik %65,1era jeitsi da erabilera. Ondoko grafikoan ikusgai euskararen erabileraren datuak lurraldeen arabera.

Euskararen erabilera lurraldearen arabera. Euskararen eremu osoa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

VI. Inkesta soziolinguistikoa (VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016), euskal elebidunen sailkapen bat baino gehiago ageri da, aztergai den elementuaren arabera. Batetik, hizkuntza gaitasunaren autopertzepzioari buruzko galderetan oinarrituta hiru perfil bereizten dituzte: euskalduna, euskal hartzailea eta erdaldunak. Bestetik, euskararen nagusitasuna neurtzerakoan, hiru perfil bereizten dira; euskal elebiduna, elebidun orekatua, erdal elebiduna. Euskaldunen lehen hizkuntzaren arabera beste sailkapen hau egiten da: *euskaldun zaharra, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak*. Inkestan erabilitako perfilen definizioak bildu dira eta ondorengoak dira; euskaldun zaharra, “ama-hizkuntza euskara izan eta euskara "ondo" ulertu eta hitz egiten duten pertsonak”; jatorrizko elebiduna “Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskara "ondo" ulertu eta hitz egiten duten pertsonak”; euskaldun berriak “Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskara "ondo" ulertu eta hitz egiten duten pertsonak” (Euskal Estatistika Erakundea, 2016).

2.4. LANAREN HELBURUA ETA HIPOTESIAK

Lan honen helburua nazioarteko aldizkarietan argitaratutako euskaldunei buruzko ikerketa enpirikoetan euskal elebidunak nola ezaugarritu eta sailkatu diren aztertzea da, eta hartaz SCOPUS datu basean aurkitzen diren lanen azterketa egin da azken 7 urteetako

argitalpenetan oinarrituta, Surrain eta Luken (2019) lanaren jarraipen gisa, nolabait. Erabilitako deskribapen eta etiketek garbitasun/ argitasun falta dutela ondorioztatzen dute Surrain eta Lukek (2019) elebitasunen ezaugarriei dagokienez. Beraz, ikerketa burutu baino lehenagoko hipotesiak etiketei dagozkienak eta elebidunen ezaugarriei dagozkienak izan dira.

Batetik, etiketei dagokienez; elebidun motaren garrantzia azpimarratuko da, 1) jabekuntza-adina, eta 2) elebidunaren hizkuntza bikotea kontuan hartuz. Ezaugarriei dagokienez; 1) erabilera ezaugarri oinarritzkoena izatea espero da, 2) eskolatze hizkuntza zein den zehaztu eta 3) parte-hartzaileen gaitasuna ere erabiliko dira elebidunaren deskribapena egiteko. Pentsa daiteke ikerketa gehienetan ez dela gaitasuna objektiboki neurutuko. Surrain eta Luken emaitzek erakutsi zuten parte-hartzaileen informazio soziolinguistiko urria ematen zutela ikerketetek, nahiz eta jakin elebitasuna jarduera interaktiboa den. Euskararen kasuan, bai ordea, izan daiteke 4) kontextu soziolinguistikoa lan gehienetan kontuan hartuko den faktoreetako bat izatea.

3. METODOLOGIA

3.1. CORPUSA

Lagina hautatzeko, nazioarteko Scopus datu-basean Basque* eta bilingual* hitz gakoak ditugu eta laginak euskara erabili den ikerketa enpirikoetara mugatu da, 2015 eta 2021 urte bitartekoak. Bilaketa horren ondoren 135 artikulua ageri ziren eta horietatik 100 artikuluk betetzen zituzten lan honetarako aintzat hartzeko irizpideak. Honako hauek izan ziren, laginean sartzeko kontuan hartu ziren bi irizpideak, Surrain eta Luken (2019) lanean bezala: batetik euskal elebidun taldeen arteko azterketak edota euskal elebakar elebidunen artekoak dituzten lanak izan behar ziren. Irizpidea betetzeko, baztertu egin ziren euskal elebidunak barne biltzen ez zituzten lanak. 35 lan ez ziren kontuan hartu, euskal elebidunen arteko ikerketak ez zirelako. Hau da, baztertutako lan horiek ez zuten oinarrian euskal elebidunaren inguruko azterketar enpirikorik egiten, euskal elebidunaren egoera soziolinguistikoaz jarduten zuten gehien bat. Bestetik, datuak ikerketa bakarreko laginak izatea kontuan hartu da, eta ez aurretiko ikerketetako datuen batura egitea, datuen arteko gainjartzeak ekiditeko.

3.3. KODEKETA

Ikerketa bakoitza kodetzerakoan elebidunen etiketatzea eta hauen deskribapena nola egin den aztertzeko kodeketa egin da. Elebidun mota zehazteko, batetik, zer etiketa erabiltzen diren kontuan hartu da. Horretarako honako hauek kodetu ditugu: a) hitz egiten diren hizkuntzen zehaztapena ematen den (hizkuntza bikotea), b) elebidun mota aipatzen den (Ez, 2H1, H2g, H2b), c) hizkuntza bakoitzaren nagusitasuna kontuan hartzen den (*dominant, balanced*), d) non erabiltzen den (etxean, eskolan, lagunartean) eta e) hiztunaren gaitasunarekin loturiko beste etiketarenbat erabiltzen den (*native, proficient, new, old*).

Horiez gain, parte-hartzaileen deskribapena nola egiten den ezagutzeko, bestelako ezaugarri hauek ere kodetu dira: a) parte hartzaileen adina (*adults, children, both*), b) elebitasun galdetegiaren erabilera (Ez, norberarena, estandarizatu, konbinatu), eta erabili bada, zein, c) ingurune soziolinguistikoa kontuan hartu den (Bai, Ez), d) hezkuntzako hizkuntza-eredua zehaztu den (Ez, D, A, B), e) etxeko hizkuntzaren berri ematen den (Ez, bai kategorikoki, bai kuantitatiboki), gaitasuna neurtu den eta nola (Ez, objektibo, subjektibo) eta objektiboa bada zein galdetegi erabili den. Surrain eta Luki (2019) jarraituz, gaitasunerako neurketa subjektibotzat hartzen da autoebaluazioa, eta objektiboa galdetegi estandarizatuaren erabilera bidezkoa (cf. Surrain eta Luk, 2019). Hizkuntzaren erabilera era kualitatiboan neurtu da (etxean, eskolan, lagunartean), euskal eremu soziolinguistikoaren eta erabileraren arteko eraginik ba al dagoen aztertzeko. (Ikus 1.Irudia. de Bruin et al., 2022; Molnar et al., 2021; Lallier et al., 2021)

| | A | B | C | D | E | F | |
|---|---|----------------------|-------|-------------------------------|-----------------|--------------------|-------|
| 1 | Z | EGILEA | URTEA | TITULOA | Elebidun, eleb. | Hizkuntza biko | Elebi |
| 2 | 1 | de Bruin, A., Martín | 2022 | ¿Perro o txakur? La elección | elebidun | gaztelania-euskara | ez |
| 3 | 2 | Molnar, M., Alemán | 2021 | El procesamiento de la cond | biak | ez | 2H1 |
| 4 | 3 | Lallier, M., Martín, | 2021 | La transferencia interlingüis | elebidun | Frantses-euskara, | H2g |

| | G | H | I | J | K | |
|---|---------------|---------------|--------------|---------------------------|----------------------|---|
| 1 | Elebidun mota | Elebidun mota | Nagusitasuna | Euskara non (E | Etiketari zerba | I |
| 2 | ez | | | lagunekin, etxean, lanean | | |
| 3 | 2H1 | | | lagunekin, etxean, | Gaztelania-hiztun fa | |
| 4 | H2g | | | | | |

| | M | N | O | P | Q | R |
|---|----------------|----------------|----------------|----------------|--------------------|--------------|
| 1 | Elebitasun gal | Galdetegia (Ze | Adina (haur, g | Ingurune sozic | Ingurunea (oh | Ikasketa (Ez |
| 2 | Konbinatua | norberak | gazteak | ez | | D, B |
| 3 | Norberarena | Gurasoei | haur | bai | Gaztelania-euskara | ez |
| 4 | Norberarena | Gurasoei | Gazteak | ez | | D |

| | T | U | V | W | X | Y |
|---|----------------|---------------|---------------------|----------------|----------------|---------------|
| 1 | Etxeko hizkunt | Etxeko H zenb | Etxeko H ohari | Gaitasuna (ez, | Gaitasun objet | Gaitasun su |
| 2 | ez | ez | | | LexTale | self reported |
| 3 | bai | ez | | Subjektiboa | | Self reported |
| 4 | bai | bai | euskara eta frantse | Subjektiboa | | self reported |

1. Irudia. Kodeketa de Bruin et al., 2022; Molnar et al., 2021; Lallier et al., 2021.

4. EMAITZAK

Corpusaren deskribapen orokor bat egitearren, aipatzekoa da 100 ikerketetako laginean, euskara-gaztelania 90 ikerketa zirela (%90), euskara-frantsesa 5 ikerketa (%5), eta euskara-gaztelania-ingelesa 5 (%5). Ikerketen %64k gazteak ikertu ditu, %8 helduak eta %17k haurrak. Haurrak eta helduak aztertu dituzte 2 (%2) ikerketek, gazteak eta haurrak 4 (%4) ikerketek, gazteak eta helduak 4 (%4) ikerketek eta, haurrak gazteak eta helduak ikertutako ikerlan bat (%1) dago. Emaitzetan elebidunak izendatzeko erabiltzen diren etiketei dagokien azteketa (4.1.) eta elebidunez ematen den deskribapenaren azterketa (4.2.) bilduko da.

4.1. ETIKETEN AZTERKETA

Datu baseko 100 ikerketetatik, 31 ikerketetan jasotzen zen parte-hartzaileen arteko elebatar elebidun dikotomia (1.Taula). Elebakarrak deskribatzerakoan, hitz egiten den hizkuntzari erreferentzia egiten zaio (adb. *Spanish monolingual*). Elebidunak deskribatzerakoan, ez da soilik “elebidun” gisa zehazten euskal elebidunen taldea, ikerketetan kalifikatzaile gehigarria zehazten da. Elebidunen etiketen azterketan ondorengo etiketak identifikatu ditut; batetik, *elebidun (bilingual)* etiketa soila erabili dutenak eta bestetik, elebidunaren esperientzian oinarritutako bestelako etiketak. Horietan barne biltzen dira erabiltzen diren hizkuntzen izendapenari dagozkionak (hizkuntza bikotearen erabilera, adibidez *Spanish-Basque bilingual*), jabekuntza-adinarekin loturikoak (adb. *simultaneous bilingual*) eta azkenik, hizkuntza nagusitasunarekin loturikoak (*Basque dominant bilingual*).

1.Taula. Etiketa nagusien inguruko emaitzak.

| Etiketa | Adibidea | n | % |
|--------------------------|------------------------------------|----|-----|
| Elebiduna bakarrik | Elebiduna | 69 | %69 |
| Elebidun eta elebakarrak | <i>Monolinguals and bilinguals</i> | 31 | %31 |
| Hizkuntza bikotea | <i>Basque-Spanish bilingual</i> | 64 | %64 |
| Nagusitasuna | <i>Balanced bilingual</i> | 13 | %13 |
| Jabekuntza-adina | <i>Simultaneous, 2H1</i> | 83 | %83 |

Hartara, 83 ikerketetan (%83) elebidun mota jabekuntza-adinaren arabera etiketa bidez zehazten da, hots, 2H1, H2g, H2b, H1 eta H2. %15k ikertu dute jaiotzeko elebiduna (2H1), %23k ondoz ondoko elenidun goiztiarra (H2g) eta %3k berantiarra (H2b). Hauetan kontuan hartu dira jaiotzetiko elebiduna edo elebidun goiztiarra izendapenak erabili dituzten lanak (*simultaneous bilingual, early bilingual*), bata hala bestea izendatzeko muga 6 urtetan dago. Ikerketa hauen artean, kodetutako etiketez gain, lanen %12ak (n=12) gehitu egiten dute *native* etiketa. Jabekuntza-adinarekin loturiko euskaldun berri (*new basque speaker*) eta euskaldun zahar (*old basque speaker*) etiketak jasotzen dira 4 ikerketetan (Ortega et al., 2021; Lanto, 2016; Lanto, 2017; Andonegi, 2017).


Hizkuntza gaitasun eta nagusitasunari dagokionez, %13k darabil (n=13) preferentzia edo nagusitasuna adierazteko etiketaren bat (*dominant, balanced bilingual*) eta %9k gaitasunari erreferentzia egiten dion etiketaren bat (*highly proficient*). Nabarmentzekoa da bi lanetan (%2) (Milla et al., 2019; Gorter, 2015) euskal hiztunei erreferentzia egiterakoan, hizkuntza gutxituko hiztunak direla argitzen dutela (*minority language speaker*).

4.2. ELEBIDUNEN DESKRIBAPENA


Euskal elebidunen deskribapenean jarri dugu arreta, alegia, zer informazioa ematen den elebidun horiei buruz, horretarako, kontuan izan ditugu parte hartzaileen jabekuntza-adina, hizkuntza nagusitasuna, erabilera kopuruaren zehaztasuna, eta ingurune soziolinguistikoaren inguruan ematen den zehaztasuna. Informazio hau nola jaso den ere aztertu da; gaitasuna adibidez, subjektiboki edo objektiboki edota beste era bateko

informazioa galdetegi bidez lortu den edota elkarrizketa bidez. Surrain eta Lukek (2019) ondorengo ezaugarriei erreparatu diete; hiztunaren gaitasunari, eskola hizkuntzari, jabe-kuntza-adinari eta hiztunen testuinguru soziolinguistikoari. Gaitasunari dagokionez subjektiboki edo objektiboki jasoa izan zen bildu zuten, hots, autoebaluaketa bidez bildua edota administrazioak ezarritako hizkuntzaren gaitasunaren gaineko irizpideak jarraituz.

Gaitasuna ebaluatzeko galdetegiak (objektibo zein subjektiboak) eta hizkuntza-ibilbidea eta historia ezagutzeko galdetegi psikosozio-linguistikoak bereizi ditugu. Elebidunak sailkatzeko irizpideei begira, 2. Irudian ikusten denez, aztertutako laginaren %64k bilatu ditu elebidunak ezaugarritzeko galdetegiak, era objektibo zein subjektiboan. Galdetegi subjektiboak 47 ikerketetan erabili dira. Galdetegi subjektibo horien izaerari dagokionez, artikuluetan zehazten denez, gaitasun maila autoebaluazioaren (n=37) eta elkarrizketen (n=10) arabera neurtu da, eta honekin batera, euskal elebidunaren inguruko informazioa ere jaso da (erabilera ohiturak, elebidun mota, etxeko hizkuntza, etabar), hau da, galdetegi psiko-soziolinguistikoak dira eta tartean gaitasunaren autoebaluazioa dute gehienek; honen artean estandarizatu den BLP (n= 5) dugu. Autoebaluazioan Likert scale (n=24) eskala mota erabili da. Gaitasuna ebaluatzeko galdetegi objektiboen artean, honako hauek ageri dira: LexTale (n=5), Picture naming (n=11). Azken honetan ez da zehazten zein izen izendapen ariketa egin den. 2 ikerketetan (Martínez de la Hidalga et al., 2021; Monasterio et al., 2021) kokatzen dugu MCER (C1 euskara maila duten parte-hartzaileak jasotzen dituzte), eta batean (Stoehr eta Martin, 2021) jarraitzen da BEST data baseko norma.



2.Irudia. Galdetegien erabilera %etan.]



